



(5) BALIABIDE BEREZIAK

ANTOLAKETA ETA BALIABIDE BEREZIAK

Ikasleen aniztasunari erantzuteko, testuinguru eta neurriak (arruntak zein apartekoak) nahikoak ez direnean ikasle zehatz batzuen beharrak asetzeko.



5.1.- GELA EGONKORRAK

- Ikaskuntzarako zailtasun oso larriak dituzten ikasleei begira planteatzen den aukera hau.
- Gela horiek H.B.ko hezitzaile finko batzuk izan ohi dituzte esleituta.
- Normalean 5-6 ikasle asko jota. LH-n zein DBH-n.
- Horrelako gelak ez daude ikastetxe guztietan: beharren arabera proposaturik, administrazioak kudeatzen ditu.



5.2. IKASTETXE ESPEZIFIKOAK

- Ikasle batzuk premia larri-larriak nozitzen dituztenez, oso konplexua bihurtzen da ohiko ikastetxeetan eskolatzea.
- Pixkanaka-pixkanaka bada ere ikastetxea hauek gutxitzen doaz, arestian azaldutako Gela Egonkorren truke.
- Ikastetxe hauek euren ICPa egokitua dute, eta baliabide oso espezifikoez daude hornituta (laguntzaileak, logopedak, fisioterapeutak, baliabide teknikoak...)
- Kasu batzuetan **jardunaldiaren zati bateko eskolatzea** aplikatzen da: hezkuntza bereziko ikastetxeko eta ikastetxe arrunteko integrazioaren artekoa.